

ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ENPLEGU ZENTRO BEREZIEEN ERREGISTROA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETURAKO PROIEKTUARI BURUZ.

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Estatutuek, abenduaren 2ko 263/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsiek, ezarri zuten zerbitzuaren egitekoa dela enplegu zentro berezien premiak hautematea eta aztertzea, eta behar diren laguntzak kudeatzea.

Erakunde autonomo horrek kudeatzen du Enplegu Zentro Berezien Erregistroa, abenduaren 4ko 2273/1985 Foru Dekretua aplikatuz.

Ikusi da formalki arautu beharra dagoela beren jarduna Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten Enplegu Zentro Berezien Erregistroa. Bestalde, urte aunitz igaro dira egungo araudia onetsi zenetik eta araudia, berez oso argia ez dena, eguneratu gabe dago. Gainera, ez du biltzen urteotan kudeaketan izaniko esperientzia. Horiek horrela, uste dugu araudia eguneratzeko garaia etorri dela.

B) Onespeneren beharra eta egokitasuna.

Gure iritziz, batetik, teknologia berrien erabileraren ondorioz zaharkituriko alderdiak arautu behar dira, eta, bestetik, arautu gabeko kontzeptuak argitu, hala nola izen-ematea eta funtzionamendua.

Orobat uste dugu Kontratuei buruzko Foru Lege onetsi berrian ezarritakoari egokitzeko aldatu beharra dagoela araudia.

C) Arauaren helburuak

Zerbitzu publikoa eraginkortasun handiagoz ematea. Horrenbestez, honako hauek arautzen dira: Enplegu Zentro Berezien Erregistroa, kalifikazio eta inskripzio prozedura eta irabazi-asmorik gabeko Enplegu Zentro Bereziaren definizioa.

D) Zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak)

Ikusirik kudeaketa urte hauetan guztietan bildutako esperientzia, uste dugu oraingo araudiko hutsuneak konponduko dituen erregelamendua onestea dela irtenbide bakarra.